


“NERABEETAN OSASUNA SUSTATZEKO HEZKUNTZA PROGRAMA INTEGRAL BATEN DISEINUA, APLIKAZIOA ETA EBALUAZIOA, TXAKURKROSAREN BIDEZ INGURU NATURELEAN JARDUERA FISIKOA EGINEZ. KORRICAN PROIEKTU PILOTUA”



PROIEKTUAREN INFORMAZIOA

1

IKERKETAREN
ARDURADUNAK

2

INFORMAZIO
OROKORRA

3

IKERKETAREN
HELBURUAK

4


METODOLOGIA

5

ESKOLAZ
KANPOKO
PROIEKTUA

6

INFORMAZIO
GEHIGARRIA



**IKERKETAREN
ARDURADUNAK**



**Josu Solabarrieta Eizaguirre Doktorea
Erika Borrajo Mena Doktorea**



Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
University of Deusto


Xabier González Santamaría

**Deustuko Unibertsitateko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle
eta ikertzailea**

Hezkuntza Doktorego Programa

xabiergonzalez@deusto.es

688.72.72.14



INFORMAZIO OROKORRA

Xabier González Santamaría Deustuko Unibertsitateko Jarduera Fisikoa eta Kirol Zientzien Graduko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasle eta ikertzailearen doktorego-tesiaren proiektua da KorriCan.

Deustuko Unibertsitateko Hezkuntza Doktoregoko Programan txertatzen da proiektua eta Deustuko Unibertsitateko Jarduera Fisikoaren eta Kirola Zientzien graduko ikerketa taldeak garatuko du, Amarak Txakur Hezkuntza Eskolarekin eta bere txakurkros klubarekin lankidetzan eta, Arrigorriagako Ausartak Ludiko-Kirol Elkartearen eta Arrigorriagako Udalaren laguntzarekin.


KorriCan proiektua Arrigorriagako (Bizkaia) institutuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eskolatze-etapako ikasleekin proiektu pilotu gisa egingo den hezkuntza arloko esku-hartze bat diseinatzean, abian jartzean eta ebaluatzean oinarritzen da, esku-hartzearen ardatz nagusia txakurkrosa izango delarik.

Txakurkrosa mushing-etik datorren kirol-modalitate bat da, txakur baten tiratzeaz baliatuz korrika egitean datzana.

Esku-hartze hezitzailea institutuko ikasgeletan eta zentrotik gertu dauden espazio ireki naturaletan (Mendikosolo parkea eta inguruak) burutuko da.

Proiektuaren lehen fasean diagnostiko bat egiten da datuen hasierako bilketa baten bidez, eta, ondoren, esku-hartzea diseinatu eta martxan jartzen da, ikastetxearen eta ikasleen ezaugarrien errealitatean oinarrituta.

Esku-hartzea beste udalerrri batzuetara zabaldu daiteke.




3

IKERKETAREN HELBURUAK

- Txakurkrosaren bidez eskola adineko nerabeen osasuna sustatzeko bizi-ohitura osasungarriak lortzen lagunduko duen hezkuntza-programa integrala diseinatzea eta aplikatzea.
- Programak nerabeengan dituen ondorioak maila psikologiko, fisiko eta sozialean ebaluatzea.
- Animaliekiko eta ingurumenarekiko zaintza, enpatia, erantzukizuna eta errespetua sustatzea.
- Ikerketa zientifikoa sustatzea txakurkrosean.







4

METODOLOGIA

Proiektuan parte hartzen duten guztiek esku-hartzea gauzatu aurretik eta ondoren galdetegi batzuk bete beharko dituzte hala nola esku-hartzearen saio teoriko-praktiko espezifikoetan parte hartu beharko dute.

Galde-sortak: galdetegiak online beteko dira, esku-hartzea abian jarri aurretik eta esku-hartzea amaitu ondoren.






4

METODOLOGIA

Saioetan kontuan hartu beharrekoak:

- Kirol arroparekin parte hartu beharko da.
- Animaliaaren ongizatea jarduera guztietan lehenetsiko da, eta programan uko egin ezin zaion helburua izango da.
- Txakur munduarekin lotutako profesional batek (txakur-hezitzailea) esku-hartzean parte hartuko du, programan parte-hartzen duten animalien estresa, antsietata edota beldur seinaleak une oro detektatzeko.
- Animaliaaren batek pertsonaren batekin gatazkaren bat badu, ez da inplikatuaren arteko elkarrekintza behartuko.
- Animalien ongizatea bermatzeko, saioek txakur munduarekin zerikusia duen profesional batek (txakur-hezitzailea) zehaztutako denbora izango dute, denbora hori ezin gaindituz.
- Parte hartzen duten animaliek albaitaritza azterketa bat egin beharko dute saioetan parte hartu aurretik, haien egoera fisiko eta osasuna bermatzeko.
- Saioetan, animaliak askatasunez adierazi ahal izango ditu espero diren berezko portaerak eta jarduerak, bere emozio eta jokabide egoerara egokitu beharko direlarik.






4

METODOLOGIA

Saioetan kontuan hartu beharrekoak:

- Pertsonen eta animalien beharren arteko oreka bilatuko da.
- Beharrezkoa izango da prestakuntza eta ikaskuntza jardunaldi bat programa abian jarri aurretik.
- Animalien parte-hartze aktiboa sustatuko da.
- Ez da onartuko animaliei inolako zigor fisiko eta emozionalik ezartzea. Tratu txarren bat antzemanaz gero, Euskal Autonomia Erkidegoko animaliak babesteko legeetara joko da.
- Animalia kaltetu dezakeen edozein jarduera programatik kenduko da.
- Ez dago inolako kontraprestazio ekonomikorik.
- Ikerketan parte hartzea erabat borondatezkoa izango da.





ESKOLAZ KANPOKO PROIEKTUA

Ausartak Amarok Txakur-Trail Mendi Eskola:


Gazteentzako eta gazteek bideratutako proiektua da Ausartak Amarok Txakur-Trail Mendi Eskola.

KorriCan proiektuari jarraipena emateko asmoz, Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan graduatutako gazteek bideratuko duten proiektua martxan jarriko da Arrigorriagako Mendikosolo parke naturalean.

Proiektuak hurrengo helburu nagusiak izango ditu:

- Txakurkros eta Trail kirol modaliteen bidez jarduera fisiko osasuntsua sustatu herriko gazteengan.
- Formakuntza espezifikoen bidez, txakurren inguruko oinarrizko ezagutzak barneratu.
- Txakurkrosa eta Trail kirol modalitateen oinarrizko ezagupen tekniko-taktikoak sustatzea.
- Gazteengan Ingurumen Hezkuntza eta Kontzientzazio Ohitura sortu eta sustatzea jarduera aktiboen bidez.






ESKOLAZ KANPOKO PROIEKTUA

Proiektua Arrigorriagako Ausartak Elkarte eta Neguko Kiroletako eta Mendiko Amarok Txakurkros taldearen bidez aurrera eramango da.



Arrigorriagako Udaletxea, Institutua, Eskola Publikoa eta Gurasoen Elkartearen partehartzea eta laguntza ezinbestekoa izango da proiektua abian jarri eta aurrera eramateko.





6

KORRICAN EDU
PROJECT
KANALA



IRRATI
SAIOAK



BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia
bilbohiria.eus

INFORMAZIO GEHIGARRIA

← Tweet

Mugiment
@mugimenteuskadi

Posibles beneficios de la modalidad deportiva canicross entre jóvenes y personas con autismo 🌟
[#PersonasActivasCanicross](#)
Proyecto liderado por el profesor e investigador de @deusto, Xabier González Santamaría.

elcorreo.com
«Salir a correr con mi perra ha mejorado mi salud física y mental»
Un vecino de Arrigorriaga estudia los beneficios de la modalidad deportiva canicross entre los jóvenes y las personas con autismo

ERREPORTAI
DIGITALAK

Geuria
HEGU URIBEKO HERRI KOMUNIKABIDEA · GEURIA.EUS

EL CORREO

Arrigorriagako aldizkaria | zentroa de Arrigorriaga
arrigaur
arrigaur@uribio.net | www.uribio.net

 **Deusto**
Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea
University of Deusto